

URA ETA KALIMA
Aiala Garabieta Oribe
Bilbo

Egun umelak

Egun umeletan zilegi da zu maitatzea,
kalimarekin zatozelako nire bila.
Nire azalak zurea oraindik ez den usaina
bereganatzen du; berekoi, zurekoi.
Egun umeletan arras ederra da bizia,
edertasuna tristuraren errautsetan
ezkuta daitekeelako, lotsati.
Egun umeletan eguzkiaren zauriei
odola darie, zerutik irristaka
tanta lodietan. Plaust!
Edan du lurak izarraren odola
eta ilargiari eskaini dio eguzki-lorea.
Egun umeletan sikatzen da beldurra
eta ernaltzen naiz ni.

Doluaeren desertua

Idien lehian jausten dira
grabitaterantz igotzen, jotzen,
nire kokotsaren amildegian salto
odolezko bi malko,
biziaren salbiaren berotasuna eta

gezatasuna dakarte haien negarrekin.
Orduan konturatzen naiz:
non gelditua da nire barruko mina,
mina baino ez dena, ez bizia?
Uraren gazitasuna agortu al zait?
Masaileko ibaiek oihukatu didate
zure doluak eraman zuela,
sikatu dizkidala barnak.
Mina ateratzeko naizen haragia,
naizen odola geratzen zait bakarrik.
Esku-ahur hutsak dituen naufragoa,
Hare-garauek ihes egin didate
arnasatik, ahotsetik, zure hutsunetik.
Horrexegatik dira odolezkoak malkoak.

Akaso gure azala

Ohearen gosea asetzea zer den biok dakigu.
Maindiretan katramilaturik utzita azalaren aztarna,
baretua gorputzaren irrika.
Bakoitzak, ordea, bere tankeran ezagutu du ohea
norberarekin, besteekin, «bestearekin».
Bestearen haragizko enborrez eta adarrez gosatuta,
zuk ez nirea, nik ez zurea, finean, gurea ez den azala
dastatu dugu, edan duzu, arnastu dut, maitatu dugu.
Gizarteak gorena, nagusiena, helduena
deritzon azken pausua
zuk ezagutu zenuen, nik oraindik ez,
eta denboran zuk igeri egingo bazenu nigana,
eta ni zugana gerturatuko banintz kalima artean,
agian elkar aurkituko genuke.
Akaso zurea eta nirea, finean geurea den ohea,
partekatuko genuke, irakatsiko eta ikasiko.

Besteen zaporea hartuko genioke bata-besteari,
jakin gabe besteena dela,
pentsatuz, sinistuz, nirea eta zurea direla,
fedea itsuz izatea desiatuz.
Ez dira, aitzitik, baina zer inporta du?,
bestearen bailarak eta mendiak deskubrituko geni-
tuzke,
aurretik aurkituak eta gaina hartuak izan arren.
Akaso tupust egingo nuke zurekin,
akaso zuk nirekin, akaso «akaso» hori
materia pisutsu eta ukigarria den,
denbora-espazioan lekua hartzen duen
«bada» bilakatuko litzateke, edo akaso
«gertatu-zitezkeen-gauzak-baina-gertatu-ez-direnak»
bihurtuko lirateke gure «akaso» denak.